



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %1,9 haziko da 2026an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2026KO HAZKUNDEA

%1,9




Ekonomia Zuzendaritzak egindako aurreikuspenen arabera, BPGA %1,9 haziko da 2026an eta % 1,6 2027an, tentsio geopolitikoek eta, bereziki, Ekialde Hurbileko gatazkak Iranen inguruan izan duen bilakaerak baldintzatutako ingurunean. Gatazka horren intentsitatea eta iraupena aurreraztea zaila da oraindik.

Jardueraren aurrerapenak barne eskarian oinarritzen jarraituko du 2026an, batez ere kontsumo

pribatuak bultzatuta. Aurreko hiruhilekoetako datuek berresten dute familia etxeetako gastuak bilakaera positiboa izan duela, hazkundearen eragile nagusi gisa duten papera indartuz. Hala ere, hurrengo bi urteetarako aurreikuspenak ahulagoak dira, lan merkatuaren dinamismoa txikiagoa delako eta energia prezioek gora egin dutelako; horrek presio gehigarriak eragin ditzake familien errentan.


GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Kanpo eskariak, bestalde, ekarpen negatiboa egiten jarraituko du aurreikuspen horizontearen hazkunderan bi urteetan. Nazioarteko industriaren ahuleziak, tentsio geopolitikoaren gorakadak eta merkataritza oztopo berrien aukerak eragingindako merkataritzaren zatiketarekin batera, kanpo sektorearen perspektibak mugatzen ditu. Horregatik, industria %0,9 baino ez da haziko 2026an, baina 2027an bilakaera hobetzea espero da.

Enpleguak gora egiten jarraituko du, baina apalago: 2026an enplegua %1,0 haziko dela kalkulatzen da, 10.000 lanpostu gehigarriren baliokidea, 2027an %0,7ra jaitsiz. Langabezia tasa maita baxuetan mantenduko da, %7tik behera.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.